

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko maiatzaren 18a. IX. urtea. 2.351. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



LURKIZU

→ **Langile mugimenduak gehiago ezagutzeko aukera.** Euskal Herria Sozialista taldeak Aste Iraultzailea antolatu du. Aurten, munduko hainbat langile mugimendu izango dituzte hizpide, Tolosan, maiatzaren 21tik 26ra. Sevillako Villaverde del Rioko alkate den Santiago Jimenezen hitzaldia nabarmendu dute taldeko kideek. Izan ere, Jimenez eta bere taldeak udal politika marxista darabilte. ◀ 2

Berrobi mundura zabalduko dute egitarau zabal baten bidez

XXII. Kultur Astearen barruan azoka egingo dute igandean; ostegunean Karlos Zurutuza gerra kazetariaren hitzaldia entzun ahal izango da ◀ 7

Poltsikoko Antzerki Lehiaketako lehen finalerdia izango da gaur

22:30etik aurrera lau talderen lanak ikusi ahal izango dira Adunako Asvinenean; bi bakarrik pasako dira ekainak tean izango den finalera ◀ 6

Kultur ekitaldi ugari antolatu dituzte Iruran, maiatza gozatzeko

Asteartean, maiatzak 22, HITZAK argitaratutako 'Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean' aurkeztuko dute egileek, 19:00etan ◀ 6

David Azurza
Abeslaria eta musikagilea

«Erronka izan da obra egitea, batez ere, Eskuderoren lanarekin batera eskainiko delako»

Tolosarraren 'Hurkus errementaria' estreinatuko dute, bihar, Errenterian

Elkarrizketa ◀ 3

Igarondo Urpekoak-ekoek lan bikaina egin dute selekzioarekin

Frantziako Amiens hirian izan den txapelketan domina ugari ekarri dituzte Tolosako igerilari gazteek; 24 kirolari joan ziren euskal federazioarekin ◀ 5



Ezagutu Zuntzaren indarra

10Mb-ko DUOa

+ Finkoetarako deiak, 24 orduz,

Alta (99€) eta instalazioa DOAN

Helmen handiagoko Wifi N Kable-modema, abiadurik handienarekin, DOAN

Mugikorra gurekin baduzu, Internet zure mugikorrean DOAN eta BETIKO

19'9
€/hil

urtebetez

Sutapen hau 2012/05/16a baino lehen egiten diren Zuntz Bideko 10M-ko DUOaren kontratazioei aplikatuko da. Zuntz Bideko 10M-ko DUOaren hileko kuota 12 hilabetez, aktibatzen denetik hasita 12 hilabetez irautsiko da. Baina 10M-ko DUOa baino lehen emateagatik 15€-ko zordunketa egingo da bere 10M-ko hileko kuota berritzea. Zuntz Bideko 10M-ko DUOaren berriantolatuak daude. Linea ez dago berriz. Euskaltelen Telefonía Mugikorreko abantaila bat da. Astean dute, etxean Internet dute. Euskaltelen bezeroentzat soilik (Banda Zabal Finkoa), Zeharkako zerak ez daude sartuta.

logikeline

943 31 86 11

San Francisco, 19 Tolosa



Banataile
ofiziala

 **Gutunak**

Atez atekoaz eta errausketaz haratago

Zaborraren kudeaketa dugu herritarren hizpide Tolosako kaleetan eta txokoetan. Udalak bultzatuta lantalde bat ari da gaiaz informazioa biltzen. Hainbat alderdi politikok hitzaldiak antolatu dituzte. Zero Zabor taldea eratu berri da Tolosan.

Aurrerantzean nola bilduko dugu tolosarrok zaborra? Ba, denok erabakitzen dugun bezala. Tolosako arduradun politikoei eta tolosarrek erabaki behar dute zein den Tolosan zaborra biltzeko modurik egokiena. Arduradun politikoei zein herritarrek izan behar dute hitza eta erabakimena.

Alabaina, egoki biltzearekin ez da zaborraren kudeaketaren arazoa amaitzen; gutxiago sortu behar dugu eta birziklatu ondoren beti gelditzen den errefusa tratatu egin behar da. Gutxiago sortzeko legegileek eta arduradun politikoei beharrezko neurri legalak jarri behar dituzte. Dena den, herritarrok ere lagun dezakegu bide horretan egunerokotasunetik: utzi den-daren hozkailuan kartoiak jantzitako jogurtak eta biluzik datoztenak hartu!

Zaborra sortzen dugu hala ere. Nola kudeatu? Helburuan denok ados jar gaitezkeela uste dugu: zaborra ezin da bere horretan zoko batera bota eta ahaztu; duen baliozko guztia erazi behar zaio. Horretarako gaika bildu behar dela inork ez du zalantzan jartzen. Zenbat eta gehiago gaika bildu orduan eta gutxiago botako dugu zokora. Hortaz, Aralarren uestez zaborra gaika biltzeak ez du aukera pertsonala izan behar, herritarren betekizun halabeharrezkoa baizik; autoan uhala jantzea edo bidean eskuineko aldetik gidatzea bezala.

Hori nola egin izan behar du eztabaidak: eztabaida patxatsua, behar duen denbora hartuta eta inor bidean utzi

gabe. Tolosar gehiengo zabal batek onartzeko moduko zabor biltzea adostu behar dugu.

Aralarren uestez Itsasondo aplikatzen ari den moduko biltzeko sistema edo horren alde-ara bat izan daiteke modurik egokiena Tolosan gaikako biltzeko ezinbesteko bilakatzeko, egungo biltzeko sistemarekiko aldaketa txikia delako. Edukiontzien bidez egiten da biltzeko nagusiki, baita materia organikoarena ere. Atez ate biltzen den frakzio bakarra errefusa da. Biltzeko sistema horrek oraingo azpiegiturak erabiltzeko modua ere posible egiten du. Dena dela, beste aukera batzuk ere egon litezke.

Jakitin gara bestalde, Tolosako auzoak ez direla guztiak berdinak ez biztanle dentsitatez ezta egituraz ere eta, ondorioz, biltzeko sistema bat baino gehiago ezar daitezke aldi berean.

Helburua ados jartzen bagara, bidean ere ados jartzea ez zaio Aralarri oso zaila iruditzen.

Bazter batera laga dugu, nahita, berrerabili eta birziklatu ezin den frakzioa (%15-20 bitartekoa) tratatzearen eztabaida jakitun garelako, batetik, biltzeko sistema edozein delarik ere konponbidea bilatu behar-ko zaiola eta, bestetik, Tolosara erabaki-esparru zuzenetik kanpo dagoelako erabaki hori. **■ Zigor Agirrezabala eta Inaki Irabazabalbeitia.** Tolosako Aralar.

Otermin prokuradoreari barkamenak

2009ko azaroaren bederatzian, egunkari honen *Zure da hitza* izeneko sekzioan nik bidalitako idatzi bat agertu zen. Idatzi horretan Otermin prokuradorearen kontrako hitz iraingarriak erabili nituen. Idatzi honen bidez, aurrerantzean horrelakorik gehiago errepikatuko ez delakoan barkamenak eskatu nahi dizkiot Otermin jaunari.

■ Juncal Lansalot Urtizberera. Tolosa.

Munduko hainbat langile mugimendu izango dituzte hizpide, Aste Iraultzailean

Santiago Jimenez sevillarraren hitzaldia izango da egitarauko jarduerarik nabarmenena

Itzea Urkizu Tolosa

Munduko hainbat lekutako langile mugimenduei eskainiko diete, aurtan, Euskal Herria Sozialistako kideek, Aste Iraultzailea. Maiatzaren 21etik 26era bitarte, bost hitzaldi entzuteko aukera izango da Engels Ateneoan.

Aurkezpen agerraldian azaldu dutenez, «aurtengo aste iraultzaileak izaera berezia izango du, bizitzen ari garen momentu histori-



Datorren maiatzaren 21etik 26ra izango da Aste Iraultzailea. I. URKIZU

koagatik». Sistema kapitalista «bere historiako krisi ekonomikorik gogorrena» jasaten ari dela azpimarratu dute.

Horrela beraz, Tolosaldeko, Irlandako nahiz Greziako langile klaseen inguruan aritzeaz gain, Sevillako (Andaluzia, Espainia)

Villaverde del Rioko alkatea, Santiago Jimenez, izango da Tolosan, pasa den hauteskudeen ondoren martxan jarri zuten udal politika marxistaz aritzera.

Egitarauko hitzordurik bereziena hauxe izango dela nabarmendu dute antolatzaileek.

↓ Aste Iraultzailea 2012

MAIATZAK 21, ASTELEHENA

■ **19:30.** *Frankismo eta trantsizio garaiko borroka politiko eta sozialak.* Hizlaria: Ion Mintegia-ga (euskaraz).

MAIATZAK 22, ASTEARTEA

■ **19:30.** *Autodeterminazioa eta sozialismoa, programa iraultzaile eta internazionalista Euskal Herriarentzat, aurkezpena.*

Hizlaria: Ibon Artola (euskaraz).

MAIATZAK 23, ASTEAZKENA

■ **19:30.** *Villaverde del Rio: Langileen aldeko udaletxe politika.* Hizlaria: Santiago Jimenez (gaztelaniaz).

MAIATZAK 24, OSTEGUNA

■ **19:30.** *Irlanda eta James Con-*

nolly marxista irlandarraren ideiak. Hizlaria: Urtzi Reguero (euskaraz).

MAIATZAK 26, LARUNBATA

■ **19:30.** *Grezia: langile klasearen borroka eta iraultza sozialista.*

Hizlaria: Iker Otermin, Euskal Herria Sozialistako kidea (euskaraz).

Nakbari eskainitako oroigarria jarriko dute bihar, Tolosan

Euskal Herria-Palestina egitarauaren barruan, herri bazkaria ere izango da bihar, jaki arabiarrekin

I. Urkizu Tolosa

Nakbaren inguruan antolatutako Euskal Herria-Palestina egitarauaren barruan, oroigarria jarri-

ko dute, bihar, Tolosako Emeterio Arrese plazan. Pasa den larunbatean jarduera nagusiak Alegian egin zituzten arren, eskualdeko udalek babesa eman diote ekimenari.

Nakba maiatzaren 15ean ospatzen dute palestinarrek, eta 1946 eta 1948 arteko herri palestinarren exodoa gogora ekartzen dute.

Palestinarrentzat hain iluna den egunarekin bat eginez, Eme-

terio Arrese plazan oroigarria inauguratuko dute bihar, 12:30ean. Txistulariek, dantzariak nahiz bertsulariek parte hartuko dute ekitaldian, eta euskaraz, gaztelaniaz eta arabieraz errezitatuko dituzte palestinar bertsoak. Jarraian, arabiar bazkaria egingo dute.

Palestinako argazkiekin antolatutako erakusketa, berriz, igandera bitarte ikusgai izango da kultur etxean.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baratze ludikoak.** Landu zure barazkiak. Dagoeneko prest dagoen lur sail bat eskaintzen dizugu zuk barazkiak lantzen goza dezazun. Hilean 35 euro

edo gehiagoren truke, 50, 60 edo 120 metro karratuko lur saila aloka dezakezu Tolosatik hamar minutura. Zure baratze ekologikoa egiten aholkatu eta lagunduko dizugu, laborantza

ekologikoaren aldeko apustua egiten baitugu. Animatu! Eskura duzu naturaz gozatzeko eta baratzean aritzeko aukera. Kontaktatu-telefonoa: 687 122658.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

David Azurza • Abeslaria eta musikagilea

«Obra publiko familiarrarentzat pentsatuta dago»

Imanol Garcia Landa Tolosa

David Azurzaren (Tolosa, 1968) obra bat estreinatuko dute, bihar, Errenteriako Musikaste egitasmoan. *Hurkus errementaria* izena du, eta haur abesbatzarentzat eta sei instrumenturentzat egindakoa da. Testua Joxe Mari Iturralde tolosarrak idatzi du, eta biharko emanaldian Patxi Zubizarretak egingo ditu narratzaile lanak. Fatima parrokian izango da kontzertua, 20:30ean. Orereta haur abesbatzak abestuko du eta Krater Ensemble taldearen arduraz izango da zati instrumentala. Azurzaren obraren jarraian, Francisco Eskuderen *Mitoen sinfonia* obra eskainiko dute Oreta abesbatzak eta Krater Ensemble taldeak.

Nola sortuzen obra egiteko aukera? Jakinik Musikaste ko amaiera kontzertuan Eskuderen *Mitoen sinfonia* eskaini behar zutela, obra hau egitea proposatu nuen.

Mitoen sinfonia Barandiaranek jasotako mitoak dira oinarri eta nik egindakoan ere Barandiaranek berak jasotako beste mito edo ipuin batean oinarritzen da, *Patxi errementaria*, hain zuzen. Joxe Mari Iturralderekin hitz egin nuen, ipuina obrara moldatzeko.

Hurkus errementaria izena jarri diozue. Zergatik?

Unibertsalagoa izateagatik. Pentsatzen genuen Barandiaranek berak ipuinari jarritako Patxi izena nahiko berria dela. Ipuina moldatzerakoan, ez du ematen istorioa hemengo herrixka batean gertatu dela. Hain justu, testuan «inoizko inongo herrixka batean gizon bat bizi zen» dio.

Zeinek du protagonismoa obran?

Abesbatzak du protagonismoa nagusia obran. Narratzaileak istorioa kokatu eta pasarte guztiak lotzen du.

Haur abesbatzen obrek baal dute berezitasunik?



I.G.L.

Ezberdina da, eta kontuan hartu behar da. Obra honek 27 minutu ditu, baina hainbat zati ditu. Azken finean, formatu txikiko zenbait pieza dira, elkarrekin lotuta instrumentuen eta narratzailearen bidez, haurrentzako samurrago izateko bai ikasi eta bai interpretatzeko.

Eta zein entzule motarentzat pentsatuta dago?

Publiko familiarrarentzat pentsatua dago, bai helduentzat eta baita haurrentzat ere. Horrelako formatu bat, narratzaile tartean dagoela, ez da asko landu, baina oso ondo funtzionatzen du. Ipuinak ematen du aukera zerbait irekia eta entzungarria egiteko, perkusioarekin Hurkusen mailua egiteko, suaren deskribapena, de-abrua agertzen da...

Tolosan edo inguruan interpretatuko da Hurkus errementaria?

Momentuz ez daukat ezer finkatuta, baina nire asmoa noizbait egitea da, hemengo abesbatzaren parte hartzearekin.

Nola bizituko duzu estreinaldia?

Niretzat erronka bat izan da obra egitea, batez ere, Eskuderen obrarekin batera eskainiko delako, eta hori konpromiso handia da. Gipuzkoako Federazioan nengoela, nik eskatu nion Eskuderi *Mitoen sinfonia* egitea. Beraz, bi obrek in lotura handia dut.

Irudia ◊ Tolosaldea



FORMAKUNTZA JARDUNALDIA

Lehiberrik, BIC Berrilaneekin batera, dibertsifikazioa eta barnekin-tzailetasunaren inguruan formakuntza jardunaldia antolatu berri du. Jardunaldia B+I Strategy aholkularitzako Enrique Navarrok eman zuen, eta bertan barnekin-tzailetasuna jorratu zuten. Era berean, formakuntza, nazioartekotzea eta elkarlana landu zituzten. Gai hauek guztiak datorren udazkenean irekiko den Lehiberri Zentroaren ardatz estrategikoetako batzuk izango dira. HITZA

Mendikutera eta Amaiurrera bisitak

I. Garcia Landa Tolosa

Nafar Estatuta Gogoan egitasmoaren barruan, asteburuan hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Bihar goizean irteera egingo dute Mendikuteko gaztelura; hamaitakak eta Antxon Bandresi omenaldia egingo diote Urkizuko elkartean, eta azalpenak Juantxo Agirre Mauleon arkeologoak emango ditu.

Igandean egun osoko irteera egingo dute Amaiurko gaztelura. Kafea hartu eta proiektzioa ikusiko dute Amaiurko Gaztelua elkartean, eta ondoren bisitaldia egingo dute Juantxo Agirre Mauleonen eskutik. Gero talo dastatzea egingo dute errotan eta bazkaria Mendialde jatetxean. Izena Tolosako kultur etxean eman behar da eta prezioa, bazkaria barne, 30 eurokoa da.

Bateragune auzikoak askatzea exijitu du udalak

I. Garcia Landa Tolosa

Bateragune auzia dela eta, Tolosako Udalak adierazpena zabaldu du, bertan auzipetuak izan diren Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacintoren «berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna» exijituz.

Tolosako Udalak berriro ere «gatazkaren konponbide demokratikoarekiko konpromisoa» berresten duela esan du, eta bide horretan «egun espetxeraturik dauden lagunek egindako ekarpenaren aitortza» egin du.

Adierazpen osoaren berri tolosa.hitza.info webgunean jaso daiteke.

→ Laburrak

Kirikiñok Sahararako materiala bilduko du, bihar

TOLOSA ◊ Kirikiño aisialdi taldeko kideek abian jarri dute Sahararako Kanpaina. Tolosa Sahararako Bir Lehu izeneko errefuxiatu kanpamenduetan anaiturik dagoela eta, kamiseta eta eskolarako materiala bilduko dute hara bidaltzeko. Trianguloa plazan egingo dute bilketa, bihar, 10:30etik 13:30era.

Mendebaldeko Sahararen aldeko elkarretaraztea

TOLOSA ◊ Tolosaldea Sahararen elkarretarazteko antolatuta, aste honetan Maiatza Borrokan jardunaldiak egiten ari dira Tolosan. Gaur, elkarretaraztea egingo dute, 19:00etan, Tolosako Trianguloa plazan, Mendebaldeko Saharari elkartasuna adierazteko. Bestalde, bihar Bilbon egingo den manifestazioa jokatuko da egin dute elkartetik. Manifestazioa 12:00etan hasiko da Arriaga plazatik.

Euskadiko Ikasleen Orkestra, etzi, Leidorren

TOLOSA ◊ Euskadiko Ikasleen Orkestrak kontzertua emango du, igandean, 12:00etan, Tolosako Leidor aretoan. 18 urte arteko musikariek parte hartzen dute orkestra gazte horretan. Sarrerak Leidorreko leihatilan bertan izango dira salgai, 5 euroren truke.

Hiri baratzei buruzko tailerra Box.Aren egoitzan

TOLOSA ◊ Aurreko larunbatean, Olatu Talka egitasmoaren barruan, Box.A elkarretarazteko Hiri Baratzeak ekimena antolatu zuen. Zabor edukiontzia moldatu zituzten, horietan baratzeak jartzeko. Hiri baratze horien erabilpen egokia bultzatzeko asmoz, bihar 11:00 Seguroa paisajistik tailerra emango du Box.Ako egoitzan. Parte hartzeko eta informazio gehiago jasotzeko gu@boxagara.com helbidera idatzi daiteke.



harpidatzen HITZAK hitza

irabazleak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

- Zigor Leunda (Amasa-Villabona)
- Maria Angeles Eceiza (Tolosa)

Maiatzak 20 • Igandea
12:30ean Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC

Valencia Basket
saskibalo partida

Sarrerak eskuratzeko Tolosako HITZAKo egoitzatik pasa



sarrerak





Ikaztegiatiko zubira iristean, besteak beste, eliza eta udaletxea ikus daitezke. Zubi zaharra eta udaletxea ezagutu beharreko eraikinak dira, Alegian. E. MAIZ

5.500 metro dituen ibilbidea da, eta ia gehiena bidegorri bidez egingo da; Alegia eta Ikaztegieta herriak ezagutzeko aukera ematen du

Tontokaletik San Lorentzora

Eneritz Maiz

Tolosaldea eta Goierrri lotzen dituen bidegorriaren barrena egingo da Alegiatik Ikaztegiatarako ibilbidea. Alegiako tren geltokitik hasiko da, eta bertan Alegiako Gaztzearekin egingo du topo ibiltariak. 1987. urtean okupatu zuten herriko gazteek, eta kolore biziz margotuta dago eraikina. Errepidea gurutzatu, eta Tontokalera jaitsiko da.

Alegiako herritarren bilgune da Tontokale. Mugimendu handia dago, eta ibilbideari hasiera emateko, San Juan kalea eskuinetara hartuko da. Udaletxe aurretik pasa, eta kale estuan zehar elizaren ondotik pasako da. Kale amaieran, Oria ibaiaren ertzeko paseotik egingo da bidea. Eskuinetara bidegorria izango du, eta baita baratzak ere.

Oria ibaian dagoen presa ikus daiteke, eta atsedena hartzeko aulkiak ere badaude, baina bueltarako uztea hobe izango da. Hasi besterik ez da egin ibilbidea. Erre-

pidea bidegorrirantz gurutzatu beharko da, baina zebrabiderik ez dagoenez, arreta handiz egin beharko da.

Behin bidegorrian egonda, ez dago galtzeko arriskurik. Aldabako bidegurutzera iritsiko da. Bertan ezkerretara begiratzuz gero, Gorotzenea baserria dago. Gipuzkoan Bergarako beste baserri batek baino ez duen bitxikeria du: garaia edo horreoa. Galizian edota Asturiasen ohikoak dira ikus-tea. Oinplano errektangeluarra eta bi isuriko teilatua dituen eraikin osagarria da. Buruan arbelezko plaka bana dituzten sei pilaretxoren bidez dago altxatua, lurretik. XIX. mendearen bukaera aldera eraiki zuten baserriarekin batera, eta, Norteko burdinbidea zela medio bota behar izan zuten lehengo baserria ordezkatzeko eraikia izan zen.

Bidegorrian aurrera jarraituz, ezker aldean, industrigunea pasako du ibiltariak. Zelai berdeak, eta autobia ere begien bistan izango ditu. Ia Ikaztegiatar iristear dago, eta lehen etxeak ikusiko

ditu. Eskuinetara, lau arku dituen zubia dago; azpitik Oria ibaiaren pasatzen da, eta gainera, tren. Ibilbideko lehen maldatxo ia igo behar da. Herrigunera sartzearrekin batera bidegorria amaitu egiten da, eta herrigunearaino bidea espaloi bidez egingo da. Iritsi ahala, eliza eta udaletxe eraikin berria ikusiko dira. Herriko Ostautua, berriz, ezkerretarako geratzen da.

Ikaztegieta errepideak eta trenbideak erdibitzen dute. San Lorentzo izenez ezagutzen dira herriko ia kale guztiak. Zubia gurutzatuz gero, plazara sartuko da. Lasaia da, eta hurrekin jolasean ibiltzeko modukoa. Parkea ere bertan dago, udaletxearen aurrean. Eta alboko eraikinean, eguzki erlojua ikus daiteke.

Etorritako bidetik egingo da Alegiarako bidea. Herrira iristeko ordea, San Juan kaletik jaitsi beharrean, Oria ibaiaren ertzeko pasealekutik pasako da. Tartean, herriak duen puntu xarmangarrietako bat dago, zubi zaharra. Udaletxearen atzeko aldeko arkupeetik pasa, eta Larraitz auzora doan errepidea gurutzatu Kale Beherara iritsiko da ibilbidea bertan amaituz. Atsedena hartzeko toki paregabea dago.



Udaletxe paretik pasa ostean, San Juan kalea zeharkatuko da. E. MAIZ



Atsedena hartzeko parke ederra dago ibilbidearen amaieran. E. MAIZ

FATXO JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA

Noaua !!
www.noaua.com

DATUAK

- **Luzera.** 5.500 metro.
- **Ezaugarriak.** Bira eta joan-etorri luze bat.
- **Hurbilketa.** Aldiriko Renfe trennean.
- **Hasiera-bukaera.** Alegiako tren geltokian.
- **Zailtasun maila.** Ikaztegiatar herri gunera iristeko maldatxo erraz bat.
- **Azalpenak.** Alegiako alde zaharrea bira, eta bidegorritik ibilaldia.
- **Interesguneak.** Alegiako udaletxea, eliza, ermita eta zubi zaharra. Ikaztegiatar, eliza, udaletxe berria eta eguzki erlojua.

Aizkora eta lasto jasotze txapelketan, eskualdeko herri kirolariak

I. Garcia Landa

Herri kirolerako hainbat neurketak izango dira asteburuan. Bateatik, Gipuzkoako II. Mailako Gipuzkoako Aizkora Txapelketaren bi kanporaketa izango dira, igandean. Beasainen, 12:00etan, Jokin Alkizaletxe asteasuarra eta Jon Irazu zizurkildarra ariko dira. Aian, 17:00etan, Unai Otaño ibartarra lehiatuko da. Bestetik, Gipuzkoako Lasto Jasotze Txapelketa egingo dute, igandean, Beasainen. 12:00etan hasiko da proba eta bertan parte hartuko dute Mattin de la Sotilla tolosarrak eta Lander Otermin ibartarrak.

Bestalde, Eusko Label Banakako Aizkora Txapelketan bi leitzar ariko dira igandean, Urrotzen (Nafarroa) jokatuko diren final-laurdenetan. Alde batetik, Ruben Saralegi 23 urte azpikoen mailan lehiatuko da, eta, bestetik, Eneko Saralegi 19 urte azpikoetan jokatu du neurketa. Bakoitzak hiru aurkari izango ditu jokoa izango diren bi postuak eskuratzeko.

Buruntzunzin mendi elkarteak ibilaldia antolatu du iganderako

I. Garcia Landa Ametzeta

Amezketako Buruntzunzin mendi elkarteak ibilaldia antolatu du iganderako, Aralarren dauden herriko sarobeak ezagutzeko. Herriko plazan elkartuko dira, 07:30ean, eta nahi duen oro dago parte hartzerako gonbidatuta. Norberak hamaiketako eta bazkaria eraman beharko duela azaldu dute antolatzaileek. Ibilbidea 6-8 ordutan egiteko modukoa da.

Irudia Tolosa-Ibarra



DENBORALDIA BUKATU DUTE

Asteburu honetan amaitu zaio urtea Denak Taberna areto futbol taldeari. Urtea kili-kolo hasi zuen, lehen 5 partidetan puntu bakarra eskuratu baitzuen. Denboraldian emaitza hobekoak lortu dituzte eta azkenean igoerarako play-off-etatik puntu bakarrera gelditu da Denak Taberna taldea. HITZA

Igarondo Urpekoak-eko igerilariak, selekzioarekin

I. Garcia Landa Tolosa

Igarondo Urpekoak taldeko 11 kide Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuten pasa den asteburuan Frantziako Amiens hirian egindako txapelketan. Ille de France-Picardie departamenduko txapelketara gonbidatuak izan ziren hiru herrialdetako 17 talde. Euskal federaziotik 24 igerilari eta bi entrenatzaile joan ziren. Puntu puntan ibili ziren euskal igerilariak bertako igerilariarekin lehiatuz.

Neskei dagokionez, Irati Lakunza izan zen onena, Espainiako junior mailako marka lortuz 400 urazpiko proban, 3.40,86ko denborarekin. Aurtengo Munduko Txapelketara joateko txartela lortu du dagoeneko. Lakunzaz gain, urazpiko probetan berarekin egin zuten igeri Amaia Arregi nafarrak eta Ainhoa Tolosak. Mara Varela urazaleko proban egin zuen igeri. Kadetei dagokionez, lehen nazioarteko txapelketa izan zen, eta beraien denborak asko hobetu zituzten. Abiadurako probetan izan ziren Ane Gorostegi eta Itxaso Asensio.

Mutiletan eskarmetua eta gatzetasuna uztartu ziren taldean. Ur azpitik izan ziren Patxi Monge eta Gregorio Mancisidor beterranoak eta ur azaletik Aras Karakus, Ander Uranga eta Izadi Egizabal aritu ziren. Igerilari guztiek beren denbora onenak egin zituzten edo horietatik gertu ibili ziren, igerileku ederra aprobetxatuz.

Taldearekin bat, Ion Espina eta Gorka Merino entrenatzaileak izan ziren bertan igerilariarekin, punta puntako kalitatea erakutsiz.

Herriarteko partidak dituzte asteburuan Amezketak eta Tolosak

I. Garcia Landa

Herriarteko txapelketaren bigarren asteburua izango da honakoa. Amezketak eskuzkoan jokatu du Arrasateren aurka, etxetik kanpo. Aurreko asteburuan etxean jokatu zuen eta hiru partidetatik bi galdu zituen, orokorrean tanto gehiago lortu arren.

Tolosako taldeak zesta punta txapelketan hartzen du parte. Hauek ligaxka jokatu dute eta asteburu honetan Zumaiaren

aurka jokatu dute, Getariako frontoian, bihar, 10:00etan hasita. Tolosakoek ez zuten ondo hasi bere parte hartzea txapelketan, aurreko asteburuan Mutrikuren aurka hiru partidak galdu zituzten.

Nafarroako Herriarteko Txapelketan, Leitzak atsedena hartuko du asteburu honetan. Ez zuten txapelketa hasiera ona izan aurreko asteburuan, Iruñeko taldearen aurka 3-1 galdu baitzuten leitzarrek.

Leunda eta Regillaga hirugarren, Deban

I. Garcia Landa

Pasa den igandean, maiatzak 13, Euskal Herriko triatloi zirkuituko bigarren proba puntuagarria jokatu zuten Deban, eta Itsaso Leunda hernaldearrak eta Aitor Regillaga tolosarrak hirugarren postua lortu zuten.

Triatloian bete beharreko distantziak 900 metro igerian, 30 kilometro bizikletan eta 5 kilometro korrika izan ziren. Irteera lebroan, emakumezkoak izan ziren ateratzen lehenak, eta bederatzigarren postuan irten zen Leunda uretatik. Bizikletari zegokion zantian, berriz, hirugarren postura

arte aurreratzea lortu zuen. Azken korrika saioan, hirugarren postua mantentzeaz gain, bere arerioekiko tartea mozteko lortu zuen Leundak.

Ordu laurden geroago hasi ziren gizezkoak probarekin. Aitor Regillaga bigarren taldean irten zen uretatik, eta ondorengo kilometroetan lehenengo taldera iristea lortu zuen. Modu honetara, lasterketa buruan zortzikote bat osatu iritsi ziren azken transtziziora. Helmugan, zortzikote horretatik Jon Unanue izan zen azkarrena; bigarren Muller sailkatu zen, eta hirugarren Regillaga iritsi zen.

AMETSAK BILTZEN URTEBETE

Irigo Ostolaza
(Eusko Gipuzkoako koordinatzaile burua)
Ibai Iriarte
(Tolosaldeko alkatea)
Aitziber Sarasaola
(Nafarroa Garaiko parlamentaria)

EKITALDI POLITIKOIA
MAIATZAK 22, ASTEARTEA
20.00 TRIANGULOAN.

“Kontatu gure esperientziarekin hain egun berezian”

- *Especialistak andregaien loresortetan.*
- *Elízen, jatetxeen, eta abarren dekorazioa.*
- *Ezkontzaien autoak.*

Loradenda
Casa Arregui

Larrendi, 6 49108A
 Tel: 94156 2000 Fax: 94156 2000
 E-mail: casa@casarregui.com

Poltsiko lehiaketan zortzi talde onenak gelditzen dira

Asvinenearen antzerki lehiaketako lehen finalerdia gaur jokatu da, bigarrena hurrengo ostiralean

Asier Imaz Aduna

Asvineneak Poltsikoko Antzerki Lehiaketan zortzi talde bakarrik gelditzen dira. Hauetatik lau bakarrik sailkatuko dira final handirako, baina aurrez, finalerdien txanda izango da. Hain zuzen ere, lehen finalerdia gaur jokatu da, 22:30ean Asvineneak Adunaren duen egoitzan. Bigarren finalerdia hilaren 25ean izango da, hau da, hurrengo ostiralean.

Lehen finalaurrekoan, ondorengo lau talde igoko dira oholtza gainera: Aldatzen Laguntzen *Pazo o no pazo* lanarekin; Tik Tak Antzerki taldea *Zoriontasun itsua* piezarekin; Xaxa Antzerki taldea *Dulce crema de nueces* lanarekin,

eta Hernaniko antzerki taldea *Don Juan* ikuskizunarekin. Lautik bi bakarrik sailkatuko dira finalerako: bat epaimahaiak aukeratu du eta, bestea, publikoak.

Bigarren finalerdia eta finala

Bigarren kanporaketan ondorengo lau taldeak eta ikuskizunak egongo dira Adunako arte eszenikoan laborategian: Vantare *¡Oh Fortuna!* antzezlarekin; Mutandus Russum *Tarta-tarata!* ikuskizunarekin; Angelo Cadutto *Al otro lado del espejo* piezarekin eta Compañía la que tú me haces *El pan nuestro de cada día dánoslo hoy* obrarekin.

Bigarren finalerdi honetan ere, epimahiak eta publikoak antzezlana bana aukeratu du, finala jokatzeko bi txartel banatuaz. Azken gala, ekainaren 1ean izango da, hau ere ostiralean. Lau talde egongo dira bertan, eta 1.000 euroko saria jasoko du irabazleak; bigarren gelditzen denak, aldiz, 500 eurokoa.

Irudia Amasa



MENDIKO IKASGAIK

Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako LH2. mailako ikasleek mendi ibilaldia egiteko aukera izan zuten iragan ostiralean. Txangoan Amasa inguruetara hurbildu ziren. Bidean aurkitutako eraikinak, landareak eta animaliak ongi behatu zituzten, izan ere, orain euri buruzko informazioa pilatu eta «lan polit bat» egitea tokatu zaien ikasleei, irakasleen esanetan. HITZA

Udaberriko eguzkiak kultur egitarau oparoa ekarri die iruratar guztiei

A. Imaz Irura

Eguraldi onarekin batera kultur ekitaldiak etorri dira Irurara. Udaleko kultura eta jai batzordeak egitarau oparoa antolatu du *Iruran maiatzean kultura 2012* ekimenaren barruan.

Ondorengo egunetan filmak, pailazoak, ikastolaren Eguna eta hitzaldiak egongo dira, besteak beste, hilaren 26ra bitarte. Hilaren 22an, adibidez, Jon Mindegia-gak eta Joxemi Saizarrek **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN** kaleratutako *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburua aurkeztuko dute plazako ikastolan, 19:00etan.

↓ Egitaraua

MAIATZAK 18, GAUR

- **17:00etan.** 12 urtetik gorakotzat Berdinbidea sentsibilizazio tailerra, Gaztelekuan.
- **17:30ean.** Haurrentzako fantasiako film ludotekan: *Basa lagunak*.
- **17:40ean.** Helduentzako film dokumentala gurasoen gelan: *Lucio*.

MAIATZAK 19, BIHAR

- **11:00etik 19:00era.** Ikastolaren Eguna, Zilar kaleko ikastolan.
- **19:00etan.** *Goazen plazara!*, udaletxe atzeko plazan.

MAIATZAK 20, ETZI

- **17:00etan.** San Migel plazan Poxpolo eta konpainia: *Segi jutzen*.

MAIATZAK 22, ASTEARTEA

- **19:00etan.** Plazako ikastolan, *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburuen aurkezpena.

Irudia Zizurkil



LANDAREEN LILURA

30 herrialde baino gehiagotan Landareekiko Liluren Nazioarteko I. Egunaren ospatuko da gaur. Honen harira, Fraisoro laborategian mehatxatutako landareen inguruko jardunaldia egin zuten atzo. Guztira 65 bat lagun inguru elkartu ziren bertan, norberaren esperimentziak hitzaldi moduan gainontzekoekin partekatzen. Ikerkuntzaren garrantzia azpimarratu zuten guztiak. A. IMAZ

→ Laburrak

Ostatua hartzeko aukera berria ireki du udalak

LARRAUL Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapenaren lehiaketa esleitzeko prozedura hutsik gelditu dela jakinarazi du Larraulgo Udalak, inor ez delako aurkeztu. Horregatik, prozedura berriro irekitzea erabaki dute, hilaren 31ra arte bitarte. Zerbitzua hartu nahi duenak, Larraulgo udaletxean izena eman beharko du. Zalan-tzak argitzeko 943 69 30 42 telefono zenbakira deitu behar da.

Haurren udalekuetan izena emateko aukera

ZIZURKIL Euskararen erabilera sustatzeko antolatu diren udalekuetan, haurrek izena emateko epea zabalik dute, ekainaren 15a bitarte. Horretarako, Zizurkilgo udal bulegoetara joan behar da, edo 943 69 24 95ra deitu. Bestalde, Oporretan Euskarazeko begiraleen azterketa hilaren 26an egingo dute Atxulondon, 10:00etan.

Haur eta familientzako berbena, bihar, 18:00etan

VILLABONA Kanpaulue haur eta familientzako berbena parte hartzailea antolatu dute Villabonan bihar, 18:00etatik aurrera. Udaletik azaldu dutenez, antzezlana Erreboteko plazan izango da, eta euria egiten badu, Berdura plazan. Informazio gehiago ondorengo webgunean aurki daitezke: www.eidabe.com.

Kantu Eguna eta Biatloia, Maiatza Saltsanen

ZIZURKIL Maiatza Saltsan egitarauaren barruan Kantu Eguna ospatuko dute bihar, larunbata, zizurkildarrekin. 12:00etan Kantu Jirakoak Zizurkil goiko kaleetan ibiliko dira. 14:00etan bazkaria egingo dute zimiterioan, eta ondoren, Amalur taldearen kantu saioa eta erromeria egongo da. Hilaren 20an, igandean, Zizurkilgo XIV. Biatloia jokatu da 10:00etatik aurrera, goiko plazan. Udaletik eskualdeko herritarrak gonbidatu dituzte ekimen hauetara.

Gazte Asanbladaren areto futbol txapelketa, gaur

VILLABONA Gazte asanbladaren urteurrenerako prestatutako ekitaldiek aurrera jarraitzen dute. Gaur areto futbol txapelketa jokatu da 17:30etik aurrera. Bihar, hilak 19, mendi marxa egingo dute Onddo Gazte Asanbladako kideek. 11:00etan abiatuko dira plazatik mendira. 14:00etan bazkaria egingo dute berriro ere herrian, eta, ondoren, Mus Txapelketaren txanda izango da. Hilaren 22an, gazte-txean, *El Odio* filma ikusiko dute, 18:00etan, eta 23an *Iruñerriko okupazioa* dokumentala, ordu berean.

ILEAPAINDEGIKO GAIK

Marcel

EDERGINTZA

Santa Klara, 9 • TOLOSA • 943 67 19 30

ESKOLA TXIKIEN FESTAK 25 URTE

Ekainak 3, Larraulen

Puzgarriak - Pirritx eta Porrotx - Zezenak eta Pottokak - Kupela taldea - tailerrak - Eskola Txikien dokumentala - erakusketa ... zatozte ospatzera !!!

Berrobiko kultur asteak ikuspegi zabalarekin begiratuko dio munduari

Bihar hasiko da suziria jaurtitzearrekin; etzi goizean azoka egingo dute, bertako nahiz kanpoko 20 postuarekin

Iñigo Terradillos Berrobi

Bihar hasi eta hilaren 25era arte *Mundua Berrobin eta Berrobi Munduan* izenburupean, kultur jarduera ugari izango dira. Kiro-la, musika, azoka, dantza, gazte-txoentzako jokoak, hitzaldiak, tailerrak, antzerkiak... denetarik izango da XXII. Kultur Astearen barruan.

Bada, dena den, nabarmentzeko ekitaldi bat, udaletik azaldu dutenez, etzi, igandearen izango den azoka. Bertan, goiz osoan zehar, berrobitarren produktuak izango dira, hala nola, egurra lan-tzen duten herritarrenak, sagardogileen sagardoa, nekazarien profektuak edota baserrietako material zaharra. Berrobitarrez gain, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako artisauak izango dira azokan, Zegamatik datozen bi alemaniar, esaterako. Hauen kasuan, xaboi naturala jarririko dute euren postuan, eta haurrei xaboi nola egiten den erakusten ariko dira. 20 postu izango dira denera, eta horren guztiaren inguruan giro polita nagusituko da, beraz, Berrobiko Udaletik inguruko herritar guztiak gonbidatu dituzte.

«Munduari ikuspegi zabalarekin begiratu» nahi dio aurtengo kultur asteak. Hori adierazi nahi dute leloaren bidez, eta horren adibide da Iraken egoera ezagutzeko Karlos Zurutuza gerra kazetariaren hitzaldia. Bada, hitzaldi honetan bezala, gainerakoetan ere parte hartzera animatu dituzte herritarrak udaletik.



Aurtengo kultur astean ere gaztetxoak taula gainean ikusi ahalko dira. I.T.

↓ Egitaraua

MAIATZAK 19, LARUNBATA

- **10:00.** Suziria eta Uzturre mendira irteera, Berrobiko plaza-tatik.
- **17:00.** Didgeridoo (Australia-ko musika tresna) tailerra gaztetxean.
- **20:00.** Didgeridoo kontzertua.

MAIATZAK 20, IGANDEA

- **10:00-14:00.** Udaberriko merkatua: Berrobiko nahiz Euskal Herriko produktuekin, eskulanekin eta bigarren eskuko gauzeekin.
- **Tartean.** Haurrentzako xaboi naturalen tailerra, eta pintxo poteoa sagardoarekin lagunduta.
- **16:00.** Mus txapelketa jolas-tokian.
- **17:30.** Berrobiko gaztetxoentzako dantza emanaldia.

MAIATZAK 21, ASTELEHENA

- **17:00.** Buruhandiak, ume jolasak eta euskaraokea.

MAIATZAK 22, ASTEARTEA

- **17:00.** Gazteen pilota partidak.
- **19:00.** Gipuzkoa Zero Zabor hitzaldia, Etxolan.

MAIATZAK 23, ASTEZKENA

- **17:00.** Sukaldaritza erakustaldia Felix Belauntzararekin, Bide Ona elkartearen (haurrak zaintzeko zerbitzua egongo da).
- **19:00.** Hitzaldia: *Euskal Herriko independentzia ekonomikoa* Oskar Arantzabalekin, Etxolan.

MAIATZAK 24, OSTEGUNA

- **17:00.** X. Literatur Lehiaketako sari banaketa, Etxolan.
- **Ondoren.** *Eskola bizia, herri bizia* (eskola txikiei buruzko dokumentalaren aurrerapena).
- **19:00.** *Irak eskolatu* ikus-entzunezkoa, Karlos Zurutuza gerra kazetariaren eskutik.

MAIATZAK 25, OSTIRALA

- **17:30.** Antzerkia eta musika emanaldia eskolako aretoan.

2012-2013 ikasturterako matrikulazioa hasiko da Loatzo musika eskolan

I. Terradillos

Loatzo musika eskolan datorren ikasturterako matrikulazioarekin hasiko dira astelehenean. Adun-an, musika eskolan egingo da, hilaren 22an goizez, eta hilaren 24an arratsaldez. Alegian, eskolan egin ahalko da hilaren 21ean arratsaldez, eta hilaren 22an, kultur etxean, goizez. Altzon, udaletxean izango da, hilaren 22an, goizez eta 24an arratsaldez egingo da. Irurran, musika eskolan, hilaren 22an goizez eta 24an arratsaldez. Villabonako musika eskolan hilaren 22an goizez, eta 23an goizez eta arratsaldez. Eta, Zizurkil-en, Otaño ikastetxean hilaren 21ean arratsaldez, eta Atxulondon, hilaren 23an goizez.

Ibarrako plan orokorra definitzeko prozesuari ekingo dio gaur, udalak

Herritarren parte hartzearen bitartez egingo dute; prozesua aurkeztuko dute gaur, herriko plazan

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Udalak eginiko azken osoko bilkuran hiri antolaketa-ko plan orokorraren tramitazioa eteteke erabakia hartu zuen, prozedura berri baten bitartez plana zehazteko helburuarekin. Bada,

→ Laburrak

Munduko ipuinen kontaketa, astelehenean

IBARRA ▶ Ipuin-kontaketa saioa izango da kultur etxean, Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Egunean, hilaren 21ean. Izaskun Mujikak *Munduko ipuinak* saioa eskainiko du, 18:00etan.

Euskal Herria kalean zirkulazioari moztuta

IBARRA ▶ Biharko Merkataritzaren eguna dela eta, 10:30etik 15:00etara, Euskal Herria kaleko 1 eta 17 zenbakien arteko ibilgailuen zirkulazioa moztu egingo dute. Berastegitik datozenak txumtxatik joango dira, eta Tolosatik doazenak, Idoiatatik.

Hirigintza batzarra, datorren astelehenean

AMEZKETA ▶ Hirigintza eta ingurumen batzordeen bilera egingo dute astelehenean, hilaren 21ean, 20:30ean, udaletxeko batzar aretoan. Herritarrei irekia izango da batzarra.

«herriko lurra nola erabili» definitzeko planaren prozesua parte hartzaile izango da, eta gaur bertan emango zaio hasiera. Izan ere, herritarrak deitu ditu udalak plan orokorra definitzeko prozesua nola parte hartu azaltzeko. Ibarrako plazan (euria egin ez gero, kultur etxean) 19:00etan elkartuko dira udal ordezkariak eta herritarrak.

Gerturatzaren diren herritarrei planari buruzko informazioa biltzen duen triptiko bat banatuko diete. Ibartar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

JAVIER AIZPURUA ZUBIZARRETA
SASIKOIA
Hemenegun hil zen, 48 urte zituela. Elzaskoak eta Aita Santuaren bedelkapena hartu ondoren...
- Golan bego -
Zure amandria Euzeri eta zure lehengusua. Ez zaitzugu inolaz ahaztuko.
MIXU HAUNDI BAT ETA GERO ARTE.
Haren arimaren alde otortu bat eskatzen dizute, eta arren etorri behar duela hita elizkoiarekin, GAIUR izango da, OSTIRALA, antzerki-dela SEI ETA ERRETA, Zazuko SAN JOAN BATAJATZAILA-FRANTZISKOTARRIN elizan. Alder aurretik, mila esker.
ZARAUZI, 2012ko maiatzaren 18a
Helbidea: Tolosa 01.318
Oharra: Hileta Zazuko Tontorren inguruan.



≈ 15°
≈ 13°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	16°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!

Manex Balardi (Tolosa). Igandean lehenengo Jaunartzea egingo duzu. Zorionak eta ondo-ondo pasa Lizartzako familiaren partetik.



Zorionak! Olatz eta Iñigo.

Ondo-ondo pasa zuen ezkontza egunean!



Urte askoan!

Aitor Munduate Zabala (Anoeta). Zorionak. Gaur 4 urte egiten dituzu. Muxu handi eta bero bat denon partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

Gaur hasiko da Tolosako zinemako bono salmenta

Rebeka Calvo

Gaurtik hasi eta hilaren 28a bitarte Tolosako zinemako bonoak erosi ahal izango dira zine saioen aurretik. *Sombras Tenebrosas*, *Las Nieves del Kilimanjaro*, *Re-dención*, *Gazta zati bat*, *La pesca de salmón en Yemen*, *Miss Bala*, *Los caminos de la memoria*, *Mart ha Marcy May Marlene* eta *Alps* ikusi ahal izango dira bonoarekin.

Asteburuko filmak

Leidorren asteburuan pelikula hauek ikusi ahal izango dira. Gaur 22:30ean, *Sombras tenebrosas*; bihar, film bera 19:30ean eta 22:30ean; igandean, 17:00etan, *Sombras tenebrosas* eta 19:30ean eta 22:00etan, *Las nieves del Kilimanjaro*.

IES MONTE ALBERTIA BHI

IRUDI PERTSONALAREN HEZIKETA-ZIKLOAK

IRUDI HEZIKETA
Heziketa zikloa 2012-2013
HEZIKETA
943 310 873

ESTETIKA
ESTETIKA eta DISEINUA
943 310 873

ILERPAINHETA
ILERPAINHETA eta DISEINUA
943 310 873

ERDI-MAILA
ERDI-MAILA eta DISEINUA
943 310 873

GOI-MAILA
GOI-MAILA eta DISEINUA
943 310 873

Askaezazu irudimena zure DISEINATU

ceinpro
TITULAZIO
OFIZIALAK

**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

ETZI

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 38 49.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.